

KARMELE IGARTUA GOGOAN

## BIZI AHALA IDATZI

Abuztuan hil zenetik hona, lagun askok omendu nahi izan dute Karmele Igartua, besteak beste, MUGALARiko kolaboratzaile ere bazena. Bihar, Idazle Eskolak antolatuta, omenaldia eskainiko zaio Bergarako UNEDen. Ekitaldian, beste ekintza askorean artean, bere bi poema liburuetakoa olerkiak irakurriko dituzte. Honako hau Tere Irastortzaren omenaldia da.

Tere IRASTORTZA

**I**raganean berridatzi dinat, USB batetik ateratako hire soslaietako bat, eskatu ninan soslai profesional xamar hura. Eta osatu dinat harez gerokoa, beti iraganean, egin huenaren lekukotasuna gera dadin.

Hotz geratzen dun baina, seme-alaba gabe, aita-ama gabe, Rai gabe, hire lagun eta irakurle gabe: gu denok gabe. Eta pentsatu dinat orain hik idatzitakoaren irakurle izango naizela, hi izan haizen bezala hik idatzitakoarena. Kontua dun, zer esango dudun, dena esanda uzteko, kontu batzuk bakarrik aukeratuta!

**MARINA TSVIETAIEVA**

Nire eskola batean irakurgaien artean aipatu... eta hi harrapatu egin hinduen Marinak. 2007k urtarrilerako Winloko lehen gutuna itzultzen hasia hintzen. 2007-2008an eman huen hitzaldia Idazle Eskolan Marina Tsvietaievari buruz, "Bizi ahala idatzi" izendatu huen. Eta harez geroko guztian gurekin ibili izan dinagu: amodioari, leialtasunari, idazteari, denborari, zauri-ezintasunari buruzko bere gogoeak geureetara ekarriz.

Nola sinistuko dinagu orduan bat joaten dela hiltzen denean, geuk Tsvietaieva eta Rilke, eta Szymbroska eta Vallejo eta Dinesen eta Perpetua Saraguetarekin hartu badinagu arnasa?

A... eta zera Tsvietaiebarekin ikasi genin besteengandik jasotakoa aurrena ondo xurgatu behar zela, berriz, itzultzerakoan, berriz esaterakoan bizi eta originala izan zedin. Hitzok, zera... eraginei buruz aritzeko beraz.

Eta esan behar dinat "EGAN"ekoek, az-

kenean, datorren urtean aterako dituztela gu bion itzulpenak eta bion artean osatutako irakurketa.

**HITZAK ORBAINETAN**

Nik isilean gordetzeaz idatzia ninan gehiena. Eta hik apuntatu huen nire poema baten ondoan «Isilean gordea», "konpartitu ezina". Eta hirekin ikasiko ninan ziurrenera esaten ere, zeren eta "Izendaezinaz" libururako jarria nindunan pentsatzen esaten ez dena existitu ote litekeen. Eta orain hik liburua irakurtzeko emandako argibideak kopiatzea besterik ez zaidan geratzen.

«Hitzek orbainetan duten senda-indarraren beste aldean, orbainek hitzetan utz dezaketen memoria agerian uzten dute liburua honetan. Iragana orbainetan bizi delakoan, garena berritzearen kontzientzian ere badagoelakoan, eta esku ahurrean izan nahi duguna irudika daitekeelakoan idatzitako poema liburua da».

**DENBORA ENAREN HEGALETAN**

Argibide horiek ematera jarri hintzenerako, baina, hurrengoan murgilduta hengoan, arras. Eta argitaratu gabeko testu batean idatzita utzi huen enara beltza denboraren irudizat hautatu izanaren arrazoia: «Enara hau beltza da,/ eta enara beltza ez da alanbretan geratzen, ez da ur ederretan pausatzen,/ ez du haritz hostoetan atsedunik hartzen./ Enara beltza, bizi sortu eta geroan izateko, bakarrik,/ kabitzen da denbora geldian (...).»

**ITSASO KONTRA BAT**

Hitzok idazten hasteko Debussy-ren "Itsaso" jarri dinat, baina izan zitekenan "Habenera", hain barruan eraman dun Xabier Leteren hitz eta ahots zakartuaren indarra eta izan zitekenan "Nabil", Lurdes



Karmele Igartua. GARA

Iriondorena edo "Soseguak" Garikoitz Mendizabalen diskotik, eta hainbeste...

Batez ere, Itsaso Kontra horretan airea huen beharrezko, naturaren musika hori, askatasuna hitzetan eta naturan gozatzeko, indarrak bildu eta bizitzeko, belaontzia hartu eta Greziarainoko zero urdinak aurrea amesteko, itsasoko hondar bustiak pasa eta pirata urdin izateko, olatuztar handi horiek beldurtu arren, iparra min eta sarkor eta hotz zetorrean ere, itsasoaren eskergari aurrez aurre begiratu eta heriotzaren aurrean bizitzeko. Eta olatuz, itsasoz, belaontziz, parentesiz, ospitalez tindatutako poema liburu ederra utzi dun idatzita, ez hagoenean irakurtzeko, ez hagoenerako hainbeste idatzi dun eta, lehen ere!

Eta bahekien baietz, baina ez noiz, eta datorren udaberri modutsuan aterako din Pamielak liburua

**«DEBRAZETE»**

Gure ikasle hintzela "Gaur arte" lanarekin Beka jaso ostean, Bergarako plazan *debrazete* heldu eta galdetu hidan «Baina orain esan, zuk uste duzu gu idazle izan gaitzkeela?». Eta ez zakinat zer erantzungo ninan, baina galderak ezustean harrapatu nindinan arren, balekoa izango zunan nonbait.

Harez gero, esan beharrek gauza asko adierazi didan, Aretxabaletan bezala, *debrazete* helduta.

Kontua dun, ordura bitartekoan, argitaratzeko aukerak izanik ere ez hintzela auzartu eta orain utzi ditun hainbat gauza argitaratzear... bizi ahala idatzi, eta idatzi ahala bizi izan haizen honetan, bahekielako garaikide izango hintzela hire hitzak guretzat idatzi eta orain, Botticelliren Venus-a bezala, guri begira daudelako hitzok: debalde eskainiak, ez alferrik esana.

## LITERATURARI LOTUTAKO BIZITZA

Gipuzkoako Aretxabaletakoa, bertako Kurtzebarri LH eskolan egiten zuen lan 1980az geroztik. Urte askoan tutore lana egin arren, Ikasketa Buru lanak ere egin zituen eta batez ere irakasleen eta ikasproiektuen arteko koordinatze lanen ardura izan zuen.

Literaturarekin lotutako jarduerak beti izan zituen gustuko eta eskolan jorratu zuen bide hori. Beste ekimen batzuen artean, Abelino Barriola deklamazio lehiaketa prestatu ohi zuen. Berak sortutako antzezlanak ere

taularatu zituen ikasle nahiz irakasleekin, baita urteroko Literatura Astea antolatu ere.

2005-06 ikasturtean Idazle Eskolako graduondokoa eman zuen izena. Lehenengo ikasturtean Idazle Eskolako beka irabazi zuen Narrazio alorrean. 2006-07 ikasturte bukaeran abian jarritako Idazle Eskolako [www.idazten.com](http://www.idazten.com) webgunearen kudeatzaile bihurtu eta gerora koordinatze lanak bere gain hartu zituen. Harrezkero, Bergarako Idazle Eskolako koordinatzaile izan zen.



Bere argitalpen nagusien artean daude "Hitzak orbainetan" eta "Denbora Enaren hegaletan" poema liburuak. Tsvietaievaren "Winloko gutunak" euskaratu zuen ("EGAN" aldizkaria, 2009). Argitaratzeko daude bere hainbat iritzi-narrazio eta "Itsaso kontra bat" (Pamiela, 2011). Horrez gain, hainbat lan argitaratu zituen MUGALARI, "Nabarra", "Administrazioa euskaraz", "Luma berrien eleak" eta "Hatsa"-n. Horiek denak eta beste asko [www.idazten.com](http://www.idazten.com) webgunean irakur daitezke. T.I.